

4. Sendia



4.1

Argazkian Santanderko Bustablado herriko Madrazo-Alonso sendia dogu. Jose Madrazo eta Basilisa Alonso dira gurasoak. Joan dan mendeko hondarretarantz Arantzazun kokatu zirean, Olarren. Ordurako seme-alabak izanak zirean eta Arantzazun jaiok azken bostak baino ez dira (Dolores, Pedro, Jose, Serafin eta Andres). Arantzazun jaiok ez direnetan, Pantxike, Pedro, Mateo, Franziska, Manuel eta Felipe izenak ezagutzen doguz. 1896 inguruko argazki honetan, Andres da gazteena; zaharrena, Pantxike; abadea, Manuel; aurpegia ikusten ez jakona, Pedro.



4.2

Arteako Franziska Elexpe eta Argiñako Juan Tomas Bilbao euren iloba Mirenegaz Argiñako baserri aurrean 1940 aldera. Franziska Juan Tomas-en bigarren emaztea izan zan eta euren ezkontzaren frutu izan zirean Juan Tomas, Balentin, Paulo, Patxi, Toribio, Paskuala, Feliziana, Franziska eta Maria. Azken hau Jose Madrazo Alonsogaz ezkondu eta euren alaba da Miren, argazkikoa.




4.3

Atzean, Miren, Jesusa eta Justo Madrazo Bilbao; aurrean Paskuala eta Maria Bilbao Elexpe. Maria da Jose Madrazogaz ezkondu zana; ezkontza horren frutu, Jesusa, Jose, Miren eta Justo.

Jesusa 1926an jaio eta 1979-III-14an hil jakun, 53 urteko zala. Euren anaia Jose 1927an jaio eta 1991-XII-13n hil zan 64 urte ebazala. Argazkia 1950 aldekoa da.

Paskuala Atxurira kriada joan zan eta bere azken egunak Madrazonean egin ebazan.




4.4

Argazkia 1960ko San Faustoetan egina da Olarragoitin. Orduan San Fausto ospatuten zan Arantzazun eta, oiturari jarraituz, senitartekoak konbidatuta izaten zirean etxeatan. Hemen Jose Bernaola, bere arreba Marzelina, honen seme Tomas Arroita eta Maria Isabel, Tomas eta Paularen alaba.



4.5

Urikoa baserriko sendia. Aita, Julian Artetxe Gezala (1896-I-6an jaio eta 1964-II-10ean hil zana); bere gurasoak Pedro Antonio eta Florentzia. Ama, Zipriana Egiluz Kortazar (1898-IX-15ean jaio eta 1983-XII-26an hil zana); gurasoak Juan eta Matilde. Seme-alabak, Biktoriano, Matilde, Maria eta Rafael (Lola ez dago argazkian). Argazkia 1941.ekoa da.



4.6

Eujenio Ipiña Beaskoetxea, Kreszenzio Artabe, Mari Ipiña Beaskoetxea eta Jazinta Larrakoetxea. Argazkia Mari eta Kresen ezkondu zirenekoa da, 1943-I-6an. Mari 1911-III-5ean jaio eta 1991-VI-3an hil jakun; Eujenio 1906-III-7an jaio eta 1974-VI-20an hil zan. Kresen 1905-III-10ean jaio zan.



4.7

Aranduiko Josefa Ugalde Bernaola eta Asensio Uriarte Atutxa euren alaba Anizetaz, 1923 aldera. Aranduiko Eskolastiko Ugalde (1860.ean jaioa) Leona Bernaolagaz (Arantzazun, 1861an jaioa) ezkondu zan 1884.ean. Zortzi seme-alaba izan ebezan: Narziso, Julian, Maria, Angel, Josefa, Leonardo, Modesta eta Franzisko. Josefa 1919-VII-lean ezkodu zan Asensiogaz eta bost seme-alaba izan ebezan: Anizeta, Konzepzion, Maria, Mercedes eta Juan Jose.




4.8

Aranduiko Mari Ugalde Etxebarria (1920-V-3an jaioa), bere ama Kandida Etxebarria Gorostiaga, Angel Ugalde Etxebarria (1917-XII-13an jaioa) eta Mari eta Angelen loba Juan Ramon Ugalde Ugalde. Argazkia 1960koa da.



4.9

Zeanuriko Undurrako Anastasio Elexpe Iraurgi (1897an jaio eta 1971an hil zana) eta Dimako Iguriotzeko Balentina Ibarra Enriketa-Ogara (1905an jaioa) euren alaba Maria Bernardagaz. 1925-XII-31n ezkondu eta Patxi, Jose, Esteban eta argazkiko alaba izan ebezan. 1953 urtean Argiñara etorri zirean. Argazkia 1940 aldekoa da, alabaren lehen Jaunartze eguneko.



4.10

Ontoneko Barrenetxea-Duñabeitia sendia. Atzeko iladan, ezker-eskoira, Karmelo, Angeles, Gregorio (aita), Jose, Faustina (ama) Puri eta Antolin; aurrean, Begoña, Grekorio, Zakarias eta Antonia. Argazkia 1938 ingurukoa da.



4.11

Juan Tomas Pujana Arana (1880an jaio eta 1964-I-7an hil zana) Agustin Pujana Uria eta Luisa Uria Bikandi (1894-VI-21ean jaio eta 1974-XI-30ean hil zana). Juan Tomas eta Luisa 1917an ezkondu eta zortzi seme-alaba izan ebezan, Jazinta, Maria, Tomas, Petra, Gerbasio, Sotero, Juan eta Agustin.



4.12

Rekagorri-Ureta sendia. Ezker-eskoira, atzean, Kandida, Antonio (aita), Kristina, Pedro eta Antonio; aurrean, Rafael, Mari (ama) eta Serafin. Argazkian Eusebio falta da garai haretan (1940 aldera), Munduko Bigarren Gerran, soldadutzan egon eta Errusiara joana zalako.



4.13

Bilbao-Garay sendia, errotan, 1943 aldera. Ezker-eskoira, atzean, Jesus Etxebarria (umetxoa), Astapeko Sole (Maximanean kriada egoana), Isidra Bilbao, Antonio Bilbao (aite), Luzia Garai Ganzabal (ama, Orozkoko Sautukoa) eta Mari Bilbao; aurrean, Lourdes Etxebarria, Sinforoso Bilbao, Patxi Etxebarria, Angel eta identifikatu bako bi.



4.14

San Kristobalگو Ibarrodoko Mari Luz Barrenetxea Ayesta (1895ean jaio eta 1975-IV-4an hil), Pedro Egia Etxebarria (*Pedro popon*) (1888an jaio eta 1963-X-2an hil zana) eta Mari Luzen aizta Franziska. Argazkia ezkondu ziranekoa da, 1915 ingurukoa. Egiatarrak gaur etxe barriak dagozan tokian egoan etxe batean estankoa eta taberna eukezan.



4.15

Egia-Barrenetxea sendia. Aurrean, makurtuta, ezker-eskoira, Pedro, Luzia, Miren eta Benito; zutunik, gurasoak, Mari Luz eta Pedro; atzean, atean, Leontzio. Argazkia 1950ekoa da.



4.16

Idurietako Bilbao-Iza sendia etxeko balkoian. Ezker-eskoira, Tere, Nieves, Jesusa, Klaudio, Magdalena (ama), Pedro, Infamia eta Magdalena. Argazkia 1949koa da.



4.17

Juana, Piedad eta Josefa Zabala Etxebarria. Dimako Artaungo Agustin Atutxa Josefa Zabalagaz ezkondu zan eta hiru seme-alaba izan ebezan, Agustin, Teodoro eta Miren. Agustin hau Mari Uriartegaz ezkondu zan 1950ean eta alabatxo bat izan eben, Amaia. Gero Arantzazura etorri zirean, errementarira (Mariren aitak gerra aurrean eresia zan etxea) eta hemen izan eben euren seme Jose Luis. Josefa Zabala bere seme-alabak ume zirala hil zan. Baserriko ortuariak eta saltzean joan zirean Bilbora euren bendejakaz eta egun baten eroan ebezan kamioia atzerantza joiala ibaira jausi eta ito egin zirean.



4.18

Agustin Atutxa, Mari Uriarte, Piedad Zabala Etxebarria, Miren Atutxa eta Antonio Landajuela, Agustin eta Mari ezkondu ziran egunean, 1950 urtean. Agustin eta Miren, neba-arrabak, Mari eta Antonio neba-arrabakaz ezkondu zirean. Eustakia Barrenetxearen lehen gizona Landajuelatarra zan eta bi seme-alaba izan ebezan, Antonio eta Patxi. Gero Julian Uriartegaz ezkondu eta Mari, Julen eta Dolores izan ebezan. Antonio 1982-X-19an hil zan. Agustin 1995ean.




4.19

Klemente Yurrebaso Belamendia (*Kele*), bere seme Pedro Yurrebaso Soloeta, Puri Barrenetxea Duñabeitia eta bere ama Faustina Duñabeitia Zorrozueta, Pedro eta Puri ezkondu zirean egunean, 1952-IX-14an. Puri 1928-II-18an jaio zan, Pedro 1922-II-19an jaio eta 1988-VI-6an hil. Kele 1889-XI-22an jaio eta 1973an hil zan. Faustina 1893an jaio eta 1978-XII-21ean hil zan.



4.20

Olarragoitiko Yurrebasotarren emazteak, euren seme-alabakaz. Ezkerrekoa Simona Mateo dogu (besoatako umea Fernando; aurrean dagoena, Begoña), Zelestino Yurrebasoren (1905-V-19an jaioa) emaztea; erdikoa Luzia Ibarra da, Balentin (1889-II-22an jaioa) eta Pedro Yurrebasoren (1902-I-12an jaioa) emaztea (aurrean dagoan mutikoa Santi da, Pedrogaz izan eban semea). Eskoiko andrea Dominika Yurrebaso (1892-XII-20an jaio eta 1967-II-2an hil zana) da, errotazarreko Zelestino Iturbe Lejarzaren (1890-IX-14an jaioa) andrea. Yurrebasotarrak gaur desagertua dan Etxebarri baserrian bizi zirean, Olarren.



4.21

Arantzazun 1934-II-8an ospatu zan ezkontzan egindako argazkia. Egun haretan, Iurretako Eusebio Artaloitia Erdoiza (aurrean, ezkerretik bigarrena) eta Arantzazuko Iber-bekoako Felisa Uria Bikandi (aurrean, hirugarrena) ezkondu zirean. Argazkian euren senitartekoak, abadea eta monagilloak dabez lagun.



4.22

Mexikon 1947-X-21ean egindako argazkia. Bertan Artaloitia-Uria sendia daukagu. Eusebio Artaloitia Erdoiza Iurretan jaio zan 1902-VIII-8an; Felisa Uria Bikandi Arantzazun jaio zan 1908-VII-7an. 1934-II-8an ezkondu eta Mexikora joan zirean. Argazkian euren bost seme-alabak dabez lagun: Angel, Eusebio, Juan, Mari Feli eta Mari Karmen.



4.23

Ordeñana-Uriarte sendia euren senar-emazteakaz. Ezker-eskoira, Justo Ordeñana, bere ama Manuela Uriarte, Jose Badiola, Karmen Ordeñana eta Dolores Etxebarria. Umeak Justo eta Doloresen bikiak dira, Juan eta Miguel. Argazkia 1965 aldekoa da.



4.24

Bernaola-Atutxa sendia. ezker-eskoira Antonino, Atanasio, Jose, Jesusa, Isabel eta Angel; aurrean, Andres, amama Faustina Uriarte, aitite Ruperto eta Ruperto. Argazkia 1948 aldekoa da: orduan *familia numerosa* plusen bat kobratzen zan eta hori dala eta argazkia egin behar zan.



4.25

Usabeletako Aranburu-Arrizabalaga sendia. Ezker-eskoira, Monika, Gregorio (aita), Maria Mercedes (ama) eta Maria. Monika Guillermo Lekuegaz ezkonduko da Arantzazugoitira. Gregorio eta Merzedesek beste hiru seme-alaba izan ebezan (Nikolasa, Martina eta Blas). Argazkia 1921ean egina da Durangon (han egozan kriada alaba biak eta aita eta ama hara joan zirean argazkia egiteko).



4.26

Itziar Etxebarria Totorika, Dorotea Gondra (amama), Idoia Berasaluze Totorika, Juan Luis Etxebarria, Rafa eta Jesus Angel Etxebarria eta Simon Totorika, Arantzazugoitin, 1966 urtean. Itziar, Rafa, Juan Luis eta Jesus Angel Gildo Etxebarria eta Juanita Totorikaren seme-alabak dira; Idoia, Rafa Berasaluze eta Mari Totorikaren alaba.



4.27

Eskoi-ekzerrera, Jose Mari Arkotxa Uribarri eta Justa Urkiri Larrabide, Felix Arkotxaren gurasoak. Eskoian, Jose Luis Zabaleta (Begoña Landajon osaba). Justaren aurrean, Jose Mari Arkotxa Landajo. Argazkia 1968koa da.




4.28

Balentin Landajo (aita, Igorrekoa, txapelagaz dagoana) eta bere seme-alabak. Ezker-eskoira, Begoña, Itziar, Rufino eta Jazinto. Argazkia 1957koa da.



4.29

Eguzkietzeko Etxebarria-Etxebarria sendia. Ezker-eskora, Eguzkiñe, Juan (aita, Austietakoa, Nikolas eta Doleresen laugarren oinordekoa), Jon, Ismael, Jesusa (ama), Josune eta Jesus Mari. Argazkia 1965koa da. Juan eta Jesusa 1951.ean ezkondu zirean, San Andres egunean.



4.30

Toribio Bilbao eta Juanita Astondoa euren seme-alaba Ana Mari, Juantxu, Jabier eta Begoñagaz. Argazkia 1955 aldekoa da.